

**Euskal gizartea eta hezkuntza Euskal Herrian eta Europako
Batasunean 2.006 eta 2.021 urteei begira
Aldagai nagusien prospekzioa**

Eneko Astigarraga

Deustuko Unibertsitatea

Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea –ESTE–

Aurkibidea

Sarrera	3
Hausnarketaren helburuak	3
Europaren etorkizuna: eszenategi orokorrak eta tendentzia nagusiak	4
Eszenategi orokorrak	4
Tendentzia nagusiak	5
Gizarteari eta hezkuntza-sistemari buruzko hausnarketa orokorra	6
Etorkizuneko Gizartea. Hainbat tendentzia.	9
2006 eta 2021. urteetara begira. Unibertsitateko ikasleen aurreikuspena.	12
Aldagai kuantitatiboak	13
Etorkizunerako hipotesi nagusiak	14
2006 eta 2021. urteetara begira. Unibertsitateari eta Hezkuntza-sistemari lotutako aldagaien azterketa	15
Demografiaren bilakaera	15
Eskolatzetase tendentzia	21
Euskalduntze-prozesuaren bilakaera	22
Unibertsitatea lan-merkatuaren tendentzietan egokitu beharra	24
Unibertsitatea eta Lanbide Heziketa enpresaren beharretara egokitu beharra	24
Atzerriko hizkuntzen presentzia handiagotu beharra	25
Etorkizunerako erronkak	25
Teknologia Berriak heziketan eta Unibertsitatearen etorkizunean	26
Unibertsitatean Zientzia-teknologia-enpresa sistema bultzatu beharra	27
Hezkuntza-sistemaren kalitatea tinkotzeko beharra	28
Ezagueraren eta informazioaren gizarterantz	28
Ondorioak	29

Euskal gizartea eta hezkuntza Euskal Herrian eta Europako Batasunean 2.006 eta 2.021 urteei begira

Aldagai nagusien prospekzioa

1. Sarrera

Gure gizartean hain azkar gertatzen ari diren aldaketek era zuzenean eragiten dute bere barneko egitura eta ezaugarrietan. Aldaketa horiek edozein herritan suertatzen diren harremanetan nabarmentzen dira, eta baita giza sistemetan ere. Euskal Gizarteari eta hezkuntzari dagokionez, Euskal Herrian eta Europa osoan gertatzen ari diren aldaketa horiek, beste lurralde batzuetan gertatu arren ere, bertako ikuspegia erabiliz aztertu behar dira, eta aurre egin behar zaie.

Aldaketa horiek eta bertatik datozen ondorioek guztiongan dute eragina: ikasleengan, irakasleengan, ikastetxeetan eta hezkuntza-sistema osoan. Ondorio horien aurrean bi jarrera agertzen dira argi eta garbi: gure aurrean gertatzen ari denari inongo jaramonik ez egitea eta uholdeak eraman gaitzala, edo, aitzitik, uholde horri aurre egitea, geureak diren helburuak lortzeko ahaleginetan. Adierazitako lehenengo jarreraren aldekoentzat, etorkizuna idatzirik dago alde zuzenetik, eta ezinezkoa da aldatzea edo alboratzea. Beraz, era egonkor horretan besteek hartutako erabakien ondorio edo eraginak jasango dituzte. Bigarren jarreraren aldekoentzat, ordea, etorkizuna ez dago inolaz ere finkaturik, eta, horregatik, gertakizunen zentzua aldatzerik badagoela pentsatzen dute, borondatezko jarrera eta gizartearen mobilizazioaren bidez. Era horretara, kontrako joerak alde batera uztea proposatzen dute, eta, baleude, gure aldeko tendentzietatik etekinak ateratzea.

Gaur egun, hezkuntza-sistema guztiz “enblematikoa” bihurtu da gizarte moderno baten etorkizunerako, jakintzaren gizartea izendatu den honetarako, alegia.

Oro har, gure ustez, prospektiba- eta estrategia-burutapenek gero eta garrantzi handiagoa dute norberaren etorkizunari dagozkion eredu nagusiak finkatzeko, eta hartu beharreko erabakiak argitzeko.

2. Hausnarketaren helburuak

Idazki honen helburua, Euskal Herrian eta Europako Batasunean 2006 eta 2021. urteetara begira Euskal gizartean eta hezkuntzan eragin handiena izango duten aldagai nagusien prospekzioa osatzea da.

Euskal gizartea eta hezkuntza Euskal Herrian eta Europako Batasunean aztertzean, giltzarri diren aldagaiak aipatu eta datozen urteetarako aurreikusten diren tendentzia edo joera nagusiak aztertuko ditugu, gainetik bada ere.

Gauza jakina da, eta halakotzat hartua da gehienetan, sistema batek —edozeinek— izan dezakeen etorkizuna era askotakoa izan daitekeela, eta, horrenbestez, aukera egin beharra izaten dela azaltzen diren aukeren artean, eta aukera horietako bakoitzera eraman dezaketen bideen artean, jakina.

Izan ere, azken finean, prospektibazko gogoetak estrategiazko ekimena bideratzeko balio behar du¹; erronka gisa hartu den eta lortu nahi den etorkizun horretarako bidean gaur egun bertan burutu beharreko ekimenak argitzeko balio behar baitu gogoeta horrek. Prospektibazko helburuarekin koherente izateko, eta zentzu betea izan dezan, etorkizunerako erronka horiek definitzerakoan topatzen diren arazo guztientzat edo ia guztientzat aukeratu behar da irtenbidea emango dien testuinguru bat.

3. Europaren etorkizuna: eszenategi orokorrak eta tendentzia nagusiak

3.1. Eszenategi orokorrak

Atal honetan Euskal Herriko eta Europa Batasuneko gizartearen eta hezkuntzaren etorkizunari begira aurreikusten diren tendentzien eta aldagai nagusien prospekzioa eta bilakaerari buruzko hainbat datu eta hausnarketa jasoko ditugu. Hasteko, gainbegirada emango diegu testuinguru gisa Europako Batasuneko etorkizunean izan daitezkeen eszenategiei, geroago aldagai nagusien hausnarketa prospektiboan murgiltzeko.

Europako Komisioaren Prospektiba Sailak (*Forward Studies Unit – Cellule de Prospective*), Komisioaren presidentearen agindupean, etorkizunari begira bost eszenategi orokor eraiki zituen².

Laburbilduz, hona hemen bost eszenategi posible horiek:

1. eszenategia: “Merkatuaren garaipena”

Izenetik asma daiteken bezala, bere ezaugarri nagusia muga gabeko trukaketa eta liberalismo ekonomikoaren erresuma izatea da. Europa —beraren zabalera edozein izanda ere— ez da munduko beste lurraldeetatik bereizten, mundu osoa merkatu bakarra delako.

2. eszenategia: “Ehun Loreak”

Aurrekoaren kontra, erakunde handien —nahiz publikoak nahiz pribatuak— paralisian eta ustelkerian datza. Ondorioz, europarrak tokikotasuna eta ekonomia informalerara itzuliko dira, eta elkarren arteko inolako jokaerarik gabe milaka iniziatiba izango dira.

3. eszenategia: “Erantzukizun elkarbanatuak”

Eszenategi honen oinarria sektore publikoaren aldaketa sakonean datza. Ekonomia-koiuntura baikor batean, sektore publikoak giza politika eta politika industrialak berritzen ditu.

4. eszenategia: “Sormenaren gizarteak”

Honetan ere sistema ekonomiko eta politikoetan aldaketa sakonak gertatzen dira. Ingurumenaren babesa eta giza garapena balio nagusiak dira. Nolabait, gizatasun berri baterantz goaz, eta garapen iraunkorrak planeta osoko berpiztea bideratzen du.

5. eszenategia: “Auzotasun istilutsuak”

Izenburuak dioen bezala inguru geopolitiko nahasia iragartzen du, bai Europaren ekialdean bai hegoaldean, tentsio eta istilu ezberdinen bilakaerak defentsa eta segurtasunerako Europar segurtasun-kontseiluaren sorrerara bultzatzen du, ia beste inolako elkar-ekimenik izan gabe.

¹ Godet, M. (1997): *Manuel de Prospective Strategique*, Dunod, Paris.

² Bertrand, G (koord), Michalski, A; Pench L. R; Forward Studies Unit. (2000): “Scenarios Europe 2010. Five Possible Futures for Europe”, Brussel.

Jakina den bezala, ikerketa prospektiboen helburua³ ez da etorkizuna asmatzea, nolabaiteko posibilitatearekin izan daitezkeen etorkizunak aztertzea baizik. Era berean, etorkizuna eraikitzen lagundu eta, noski, etorkizunari begira egiten diren estrategia-proiektuetan tresna lagungarri izatea ere badira hausnarketa prospektiboaren funtsezko zereginak. Horrela hartu behar ditugu *Forward Studies Unit* delakoak egindako eszenategiak.

3.2. Tendentzia nagusiak

Era berean, *Forward Studies Unit* elkartekoek Europako Batasunean sortzen ari diren hainbat tendentziaren⁴ garrantzia eta etorkizunari begira izan dezaketen eraginari buruz ohartarazi nahi gaituzte. Bestalde, aurrekoarekin lotuta dagoen ikerketa batean, Europako Batasuneko Zentroa (*Joint Research Centre*) den IPTS delakoak (*Institute for Prospective Technological Studies*) XXI. mende hasierarako aldaketaren zazpi faktore giltzarri aipatzen ditu⁵. Gure gizartea eta, nola ez, hezkuntza-sistema baldintzatuko dituzten aldagai edo faktore nagusi hauen aipamen txiki bat egitea merezi du. Hona hemen zazpi faktore horien zerrenda:

1. **Informazio-gizartea.** Etorkizunean lehiakortasuna ezagueraren mugikortasunaren arabera handiagotuko da: pertsonen, erakundeen eta enpresen ezaguera eta jakintza teknologikoa eta zientifikoa. Arlo horretan Europaren potentzialtasuna handia da, baina erreforma eta inbertsio beharra duten arloak daude, batez ere pertsonen prestakuntzan.
2. **Europaren zabalkuntza eta Europako Batasunaren indartzea.** Etorkizunari begira Europaren zabalkuntza izugarritzko inbertsioa da. Zabalkuntzan sortuko diren arazoak nola fokatzen diren arabera, horrek europarren etorkizuneko jarrera eta jokabideak baldintzatuko ditu.

³ Hatem, Fabrice; Cazes, Bernard; Roubelat, Fabrice (1993): *La Prospective Pratiques et Méthodes*, Ed. Económica, Paris.

⁴ Gai honi buruz beste hainbat autore eta azterketa aipa daitezke:

Foucher Michel (zuz.) (1996): *La próxima Europa*, BBV Fundazioa.

Rosensohn, Nicole (1999): *Horizontes de Europa 2020: los albores de un nuevo renacimiento*, BBV Fundazioa.

Petersen, John L. (1999): *Hacia el 2015*, Anaya Multimedia.

Giddens, Anthony (2000): *Un mundo desbocado. Los efectos de la globalización en nuestras vidas*, Taurus.

Ortega, Andrés (2000): *Horizontes cercanos. Guía para un mundo en cambio*, Taurus.

FUTURES proiektua. JRC. 1998-1999-2000. Txostenak:

James P. Gavigan, Mathias Ottisch, Celia Greaves. "Demographic and social trends", Panel report.

Per Sorup, Tom Gameson, "Natural Resources and the environment", Panel Report.

Dr David Mercer (The futures observatory, Open Business School, UK), "Demographic and social trends Issue report: The future of education in Europe until 2010".

James P. Gavigan, Mathias Ottisch, Sami Mahroum, "Knowledge and Learning-Towards a Learning Europe".

⁵ Institute for Prospective Technological Studies-IPTS (2000): "The IPTS Futures Project". Synthesis Report.

3. **Gizarte zaharkitua.** Europa zahartzen den neurrian lehentasunak, jarrerak eta jokabideak aldatu egingo dira. Normalean, zahartzeak estatiko eta motela izatea dakar. Baina, etorkizunean teknologia berriak direla eta, hori ezinezkoa da. Hala ere, pertsona nagusiek esperientziaren abantaila dute. Baina, noraino dira garrantzitsuak egiten jakitea eta esperientzia? Zuhurtu ote daiteke Informazio-Gizartea?
4. **Giza zerbitzuen berrasmateza.** Biztanleriaren zahartze-prozesuak kostuen igoera dakarkigu (osasunean eta pentsioetan egiten diren gastuen igoera), hezkuntzarako aurrekontuak gehitzea, ingurumenaren garbiketaren koste gehigarriak etab. direla eta, zerbitzu publikoak berrasmatu beharko dira—beringeniaritza eginez—. Baina, nolako aldaketak egin beharko ditu Europak aurrekontu horiek ordaintzeko?
5. **Informatikaren nonahikotasuna.** Informatikak oraindik gehiago aldatuko ditu gure bizitzak. Gaur egun ditugun teknologiek oraindik bete egin beharko dituzte berengan ditugun itxaropenak. Arazo horrek teknologiaren eta informatikaren onarpena baldintza dezake. Baina, bestalde, Europako industriak eta kontsumitzaileak aukera hori aprobetxa dezakete gizarte berri bat eraikitzeko.
6. **Ingurumen garbia.** Ingurumenaren sostengarritasunaren aldeko indarrak oso garrantzitsuak dira: klimaren aldaketari buruzko kezka, produktu garbi, seguru eta birziklagarrien eskakizuna, ekoreaginkortasunaren ahalbideak... Baina hori guztia oso garestia izango da, eta askotan, kostuak nazioarteko akordioen bitartez ordaindu beharko dira. Europak ere bere apustuak egin beharko ditu.
7. **Aldaketa genetikoa eta horren gobernu.** Genetikoki aldatutako produktuen onarpenari buruzko eztabaidak aurrera jarraituko du, eta horrek, nolabait, teknologiaren garapenean aurkitu ditugun erronka islatzen du.

Hezkuntzaren etorkizunari buruz hainbat garapen nagusien beharra aurreikusten du *Institute for Prospective Technological Studies* (IPTS) delakoak. Lehendabizi, hezkuntza-sistema tradizionala oso motela da aldaketen aurrean, eta hori bizkortu beharra ikusten du. Halaber, premiazkoa ikusten du hezkuntzan egiten den inbertsioa gehitzea. Hezkuntza bizitzaren gaztarora ez mugatzea eta bizitza osoan luzatu beharra goraiatzen du, eta, azkenik, finantziario publikotik aparte hezkuntzaren finantziario pribatua gehitzearen beharra.

4. Gizarteari eta hezkuntza-sistemari buruzko hausnarketa orokorra⁶

Aditu guztien iritzian, gaur egungo hezkuntza-sistema informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan oinarritu behar da etorkizunean sartzeko, eta, horrez gain, eskariaren etengabeko dibertsifikazioari erantzuteko gai izan beharko du.

Gainera, eta beste atal batean sakonago aztertzen den bezala, hezkuntzaren arloko eskarian gaur egungo ikasleriaren adin-espektroak (gazte-adinera mugatzen dena, hau da, 4 eta 24 urte bitartekoa) indarra galduko du, eta helduen presentzia areagotuko da.

Pertsona heldu horiei heziketa etengaberako eta birziklatze profesionalerako sistema malgu eta baliagarria eskaini behar zaie. Horrez gain, aisialdiaren balizko hazkundera ere gizabanakoaren heziketa- eta kultura-maila

⁶ Hein handi batean atal hau, Prospektikerrek “G2020-Gipuzkoa 2020 gogoeta estrategikoa” deituriko proiekturako (<http://www.gipuzkoa.net/g2020>) bildu dituen lan materialetan oinarrituta dago.

hobetzera bideratuko da. Horri dagokionez, hezkuntza-egitura zurrinak (sarrerako eskakizunak dituzten ikastaroak) beren edukiak gizaki edo talde eskatzailearen premietara egokituko dituzten modalitate malguagoetara aldatu beharko dira.

Heziketa iraunkorra, Europako Komisioaren esanetan, “*bizitza osoan zeharreko ikasketa*” gizartearen garapen sozioekonomikorako oinarritzko baldintza dela nabarmentzen da. Baina, horrekin batera, heziketa-maila eta heziketaren luzapenak sortzen duen hutsune edo arrisku berria gogorazi behar da: analfabetismo teknologikoa.

Gure gizarteak duen erronka hori azaltzeko, *Futures* proiektuan parte hartu zuen James P. Gavigan-ek “Europa 2010: futuro y escenarios” izeneko ale berezian⁷ argitaratutako “El imperativo del aprendizaje para la población activa europea que envejece” artikulua aipatuko dugu.

Nazio eta eskualde mailan dauden alde handiak alde batera utzita, Europako biztanleria nahikoa zahartzen ari da, emankortasunak behera egitean. Fenomeno horrek XX. mendearen bigarren erdian izan du eraginik handiena. Gertakari horren funtsezko ondorio bat, epe laburrera ondorio politiko eta sozialak dituena, lan egiteko adinean dagoen biztanleria zahartzea da, hau da, 16 eta 64 urte bitarteko pertsonen multzoa zahartzea.

Gertatzeaz dagoen adin-piramidearen alderanzketak jakintza- eta gaitasun-eskakizunak egokitu beharri buruzko hainbat eztabaida piztu ditu eta bai adinez gaztea den biztanleria aktiboak ikasteko duen erraztasunari buruzkoak ere.

Lehen, jakintza eta gaitasuna gazteen, langile trebatuen eta eguneratutako ezagutzen bidez berritzen ziren, eta itxura batean gaitasunaren aldetik baliagarri gertatzen ez ziren adineko langileen erretiro goiztiarra ahalbidetzen eta sustatzen zen, baldintza sozioekonomikoen laguntzaz. Sistema hori, ordea, ez dago gaur egun aplikatzerik, hainbat arrazoi direla medio:

- ⌚ Zahartze demografikoak, biztanleriaren hazkunde baxu edo estatikoarekin batera, tirabirak sortzen ditu erretiroa hartutako herritarrak mantendu behar dituen biztanleria aktiboan. Mendetasun-tasak hobetzeko, langileek atzeratu egin beharko dute erretiroa, eta, ondorioz, gutxi erabilitako lan-erreserbak —emakumeak, batik bat— martxan jarri beharko lirateke.
- ⌚ Jakintzak agudo zaharkituta geratzen direnez, lanerako premiazkoak diren jakintza gehienak 3,5 urteren buruan berritu behar dira, eta ia etengabeko heziketa jarraitzera behartuta gaude. Horrela, esate baterako:
 - “Langileen jakintza gehien batezbesteko bizi-iraupena 3,5 urtekoa da” (OCDE, 1998)
 - “Datorren hamarkadan teknologiaren %80 ordezkatuko da” (EJD, 1998).
 - “25-64 adin-taldeko pertsonen herenetik erdira, gaur egungo lanek eta bizitzak eskatzen dutena baino jakintza-maila baxuagoa dute” (OCDE, Inbertsioa giza ondasunetan, 1998)
 - “5 urterik behin teknologikoki zaharkituta eta heziketa gehiagoren beharrea geratzen gara” (S. Rush, *IBM’s Global Education Industry* taldeko gerentea, 1999).

⁷ Gavigan, James P.; Ottisch, Mathias; Greaves, Celia (2000): “Demographic and social trends. Panel report Futures” proiektua.

- ⌚ Gazteentzat, eskolatik lanera igarotzea gero eta zailagoa gertatzen da, eskatzen diren laneko ezagutzen aldean hezkuntza formalak geroago eta garrantzi txikiagoa baitu. Lan-munduan eskatzen diren ezagutzen eta ikasketa-planen berrikuspenen arteko aldea gero eta handiagoa da.
- ⌚ Langile helduen emankortasuna gutxitzen delako ideia oker horrek dioenaren aurka, ikerketa ezberdinen emaitzek langile horiek pilatu duten esperientziaren eta jakintza gordearen balioa nabarmentzen dute. Esperientzia handiko langileak mantentzeak eta jakintza hobeto hedatzeak etekinak ekar ditzake. Aldiz, erretiro goiztiarrak urteetan pilatutako jakintzaren galera ekar lezake.

Epe laburrean beharrezkoa da langile guztien —baita kualifikatuen ere, eta, bereziki, helduen— jakintza areagotu eta hobetzea, hori zahartzen ari den biztanleria aktiboaren hobekuntzarako elementu funtsezkoa eta berebizikoa dela kontuan hartuta.

Epe ertain eta luzera, hezkuntza eta heziketa dira erronka, hots, horien erakundeak eta mekanismoak osoki berrikustea. Sehaskatik hilobira bitarteko etengabeko ikaskuntza ekonomiaren eta gizartearen mailako erakunde guztietan islatu beharko litzateke —maila pribatuan eta publikoan nahiz kooperatiba eta komunitateen mailan—. Egoera apropos horri honako izen hau jarri dio Europako Komisioak: *Bizitza Osoan Zeharreko Ikasketa*.

Gaur egun helburu horretatik urrun gaude, adin-talde ezberdinekin antolatutako heziketako jarduera neurgarrietan gertatzen den parte-hartzearen maila hutsean ere urrun (kalitate eta gailentasuneko neurri batzuetan izan ezik). Are okerrago, *International Adult Literacy Survey* ('Helduen Alfabetatzeari buruzko Nazioarteko Inkesta', alegia) delakoaren arabera, biztanleria helduaren multzo handiek oinarrizkoak diren aritmetikako jakintza "instrumentala" eta gramatikako jakintza baxua dute.

Horrez gain, adineko langileek lanbide-heziketan gutxiago parte hartzen dutenez, beren lan-ibilbidearen amaieran hezkuntza edo heziketa egituratu eta arautua hartu beharrean izango balira, oztopo handiagoak izango lituzkete. Horrek guztiak are zailago bihurtzen du epe laburrerako erronka.

Baliabideak kontuan hartuta, langileek maila egokia izan dezaten, lanpostuarekin lotutako prestakuntzan gehiago parte-hartzea nola lor daitekeen, eta eragindako kostu zuzenak nahiz aldiaren aldikoak nork ordaindu beharko lituzkeen, hori guztia ere eztabaida liteke.

Biztanleriaren bi herenak baino gehiagok ez du inolako heziketako jardueretan parte hartzen. Hala ere, arautu gabeko heziketa kontuan hartuz gero, partaidetzarik ezaren tasa txikiagoa da. Nolanahi ere, langileen portzentaje handi batek —eta bereziki hezkuntza-mailarik txikiena duenak— ez du araututako inolako heziketarik jasotzen lanean ari den denbora guztian.

Horrez gain, enpresetako programek edo lan-merkatu publikoak lanpostuan bertan eskaintako heziketaren kalitateari eta eraginkortasunari buruzko informazio gutxi dago. Ia ziurra da lanpostuari lotutako heziketaren portzentaje nahiko handia errentagarriagoa izan zitekeela. Giza baliabideen edo langileriaren gastuen beste esparru batzuk heziketa edo ikaskuntzako jarduera hobeak eskaintzeko erabil litezke.

Politika publikoari dagokionez, lan-merkatu aktiboko politikak antolatzean, heziketako jarduera guztiak xeheki balioetsi eta berrikusi behar dira, modu horretara eraginkortasuna areagotzeko. Lan-merkatu aktiboko politikak gauzatzeko, beste baliabide batzuk sor litezke (lanpostuak sortu, lanpostuak sortzeagatik enpresariei laguntzak eman, bitartekotzako zerbitzu publikoa enpleguan...), derrigorrezko heziketa banakotsua baliatzeko.

Halaber, diru-sarrerei lagunduz zergak eta etekinak barnean hartzen dituzten lan-politikako beste eremu batzuetan harago joanez, diru-sarrera horiek pizgarri eta baliabide gehigarri gisa erabil daitezke, gizabanakoek heziketako jardueretan parte har dezaten, eta enpresariak heziketa gehiago eta hobe eskain dezaten. “*Workfare*” delakoaren bertsioak ere badira, non onuradunei europar elkarteko enpresetan lan egiteagatik edo prestakuntza jasotzeagatik ordaintzen baitzaie. Sistema hori martxan dago Kanadan, Suitzan, Norvegian, Britainia Handian eta AEBetan. *Workfare* horren ezarpena hedatu eta heziketaren alderdia nabarmenduz gara liteke; hau da, “*trainfare*” edo “*ikasteaz batera, dirua irabaz ezazu*”.

Arlo pribatuan, aktibo hautemangarrietan baino gehiago aktibo hautemanezinetan oinarritutako jakintzaren ekonomia agertzeak giza kapitalak balioa hartzea eragin du, kapitaleko aktibo finkoen eta teknologikoen aurrean. Garrantzitsua da, negozioetan egindako inbertsioek errealitate hori isla dezaten, eta enpresariak, negozioetako estrategia pribatuak eta enplegatzaileak pertsonetan gehiago inberti dezaten. Horrek, funtsean, enplegatuen gaitasun eta eskumenak garatzea esan nahi du. Horretarako, premiazkoa da enpresa barruan ikuspegi berria izatea, eta ezinbesteko aurrealdintza da heziketa eragile horiexek eramatea, horrela ekonomiaren arau berriak ulertzeko. Jakina, politika publikoak ere lagun dezake horretan, legezko eta arauzko baldintza egokiak eskainiz.

Beste hainbat esparrutan bezala, Europan heziketaren egoera ez da bat bera. Hala ere, aniztasun horren barruan, Eskandinaviako herrialdeak nagusi dira gauza askotan. Lehenik, biztanleria aktiboari buruzko hainbat inkestatan, lanpostuarekin zerikusia duten heziketako jardueretan emandako partaidetza-tasak Europako gainerako herrialdeetako baino handiagoak dira beti. Adinak duen eraginari begira, Suedia aski bitxia da heziketako jardueretan emandako partaidetza-tasei dagokienez, adin-talde ezberdinek antzeko parte-hartzea ageri baitute, EBean adinak gora egin ahala partaidetza-tasek nabarmen behera egiten duten bitartean. Hain zuzen, Suedian lanpostuarekin zerikusia duen heziketaren partaidetza-tasarik handiena 40-49 urte bitarteko adin-taldean izaten da (%20), eta 59 urtetik gorakoetan tasa %10ekoa da. 15 herrialdeetako Europar Batasunak baino bost aldiz gehiago! Gainera, 55 urtetik gorakoentzako jarduera-tasak EBeko batezbestekoaren bi halako edo gehiago dira, eta langabezia-tasak, berriz, baxuagoak.

Herrialde ezberdinetan hezkuntza eta heziketa arautuetan egin eta lan-merkatuak zuzendutako gastua ere handiagoa da Eskandinavian. Horrek ez du esan nahi Suedia EB osoan jarraitu beharko litzatekeen eta praktika egokiagoa ageri duen parametro bat denik. Zalantzarik gabe, merezi du EBean dauden sistemen arteko aldeak eta arrakasta erlatiboak ikustea; baina ez itsu-itsuan.

Lehenik, Suediak eta Finlandiak, biztanleria aktibo aski zaharkitua izaki, arazo horri gainerakoek baino lehenago heldu behar izan zioten. Bigarrenik, lan-merkatu aktiboko politika batzuen eramangarritasuna edo iraungarritasuna zalantzarria da. Adibidez, Danimarkako ikasteko baimenen eredia ezaguna egin bazen, eskulanaren eskasia eragin zuelako eta hautaketako irizpide zorrotzagoak nahiz hedapena murriztea beharrezko egin zituelako izan zen.

Gainera, herrialde ezberdinetako erakundeen eta kulturaren berezko nortasuna dela eta, “praktika egokiak” batetik bestera eramateko ahaleginek porrot egiten dute sarritan. Izan ere, askotan, politika eta ekintza ezberdinez, baina funtzionalki baliokideez, emaitza hobeak lor daitezke.

5. Etorkizuneko Gizartea. Hainbat tendentzia

Hogei urte barru, Euskal Herriko gizartea helduagoa izango da, zaharragoa, biztanle askok autonomia ekonomiko handiagoa izango du —horrek emakumezkoen iritziak eragin handiagoa izatea ekarriko du—, eta, seguruenik, heziketa-maila handiagoa izango du. Testuinguru horretan, eta teknologia berrien hedapen zabala bermaturik, gaur egun ere biztanleen oraingo zein etorkizuneko bizi-kalitatean funtsezkotzat jotzen diren esparruetan iritzi-, partaidetza- eta presio-eremuak sortuko dira: ingurumenaren zainketa, gizartetik baztertutako pertsona ahulenenganako arduraren bermea, adineko pertsonen zainketa... Hain zuzen, proiektu horrek komunitatean eragiten duen edozein ekimenetan *elkarlana, lankidetzeta eta adostasuna* nola lortu beharko den aditzera ematen du.

Batik bat Europar erroka horri buruz egiten ari den hausnarketa erakusteko, *Europe 2010* izenburupean Europako Batzordearen Prospektiba Taldeak prestaturiko txostenaren VI. kapitulua ekarriko dugu hona, “*What we know about the future*”⁸ izeneko hain zuzen.

Europako garapen sozio-ekonomikoarekin batera hainbat balio aldatu dira. Balio tradizionalak ahuldu dira eta “indibidualismo unibertsala” sendotu da. Aldaketa horren adibide dira ezarritako aginpide ezberdinak (politikoak, administratiboak eta sozialak) arbuiatzea, gizabanakoa taldearen menpe egon dadin errefusatzea eta zientzia, teknologia eta arrazionaltasuna gutxiestea.

Indibidualismo unibertsala ez dago egoismo pertsonal huts modura ulertzerik, gizabanakoaren hautatzeko eskubidea eta gizakien eskubideen berdintasuna sustatzeko modu gisa baizik.

Aurrerapen sozio-ekonomikoa (hezkuntza hobea, bizi-kalitatea) eta gizartearen balio aldakorrak (indibidualismoa, aginpideen gainbehera) eragin sakona izaten ari dira europarrek ordezkapeneko demokraziaren alderdi tradizionalak dituzten jarretan. Adibidez, hauteskunde orokorretan partaidetza-maila behera egiten ari da, eta baita alderdi politikoenganako atxikipena edo militantzia. Horrek ez du esan nahi, europarrek politikan interes txikiagoa dutenik, parte-hartze eta adierazpide politiko aktiboagoak nahi dituztela baizik.

Ezarritako ideologiak eta horien ordezkariak (alderdi politikoak) gizartearen norabideari buruzko iritzi pertsonalak askatasun osoz adierazteko oztopo geroago eta handiago modura ikusten dira. Alderdi politiko tradizionalak gain, bestelako eragile egituratuak sortzen ari dira. Askotan auzi edo gai jakin baten aurkako mugimendu gisa jaiotzen dira, hala nola ingurumenaren narriaduraren edo arma nuklearren aurkako mugimenduak. Modu horretara, gobernu kanpoko hainbat erakunde sortu dira, eta horien jarduerak eremu ugari eta ezberdinetara hedatu dira. Erakunde horiek Europaren interesak elkarrekin elkarrekin edo interes-talde tradizionalak baino hobeto ordezkatzeko dituztela uste da. Gizarte zibilaren kontzeptua indarra hartzen ari da.

Azken urteetako beste joera nabarmen bat gai bakarra jorratzen duten alderdien sorrera da, hala nola herri-mugimenduen bertsio antolatuen (berdeak...), edo ezarritako alderdi politikoekiko eta sistema politikoaren funtzionamenduarekiko mesfidantza abiapuntu izan duten taldeena. Eskuineko nahiz ezkerreko mugimendu politiko horiek eragina dute ezarritako alderdi politikoetan.

Mentalitatearen aldaketa hori, pertsonen parte-hartzearen aldaketa, historian zehar garatuz eta osatuz joan da. Eragile ezberdin bat bada, ordea: Europa zahartzen ari da. Ez da joera berria, azkeneko 150 urteotan herrialde

⁸ Bertrand, G (koord), Michalski, A; Pench L.R; Forward Studies Unit (2000): “Scenarios Europe 2010. Five Possible Futures for Europe”, Brusel.

industrialetako biztanleria zahartuz joan baita, emankortasunak eta heriotza-tasak behera egitean hain zuzen. Bizi-itxaropena sekula baino handiagoa da (80 urte emakumezkoentzat eta 74 gizonezkoentzat), eta, bestalde, emakume bakoitzeko haur-kopurua sekula baino baxuagoa da (1,5 haur inguru emakumeko). Beraz, historian zehar gertatu ez den egoera baten aurrean gaude: gazteen eta adinekoen proportzioa irauli egin da, batik bat Europar Batasunerako (15 herrialdeak) azken proiektzioen arabera:

- Biztanleria egonkortze-bidean dago, eta 2025. urtetik aurrera behera egingo du. Horrela, gaur egungo 375 milioiak 2010. urtean 385 milioi izango dira, eta 2020. urtean 388 milioi.
- Gazteen kopurua (20 urtetik beherakoak) jaisten ari da, eta horrela jarraituko du aurrerantzean ere (87 milioi ingurutik 84 milioira 2010. urtean eta 80 milioira 2020. urtean).
- 60 urtetik gorako pertsonen kopuruak gora egiten jarraitzen du (80 milioitik 91 milioira 2010. urtean eta 104 milioira 2020. urtean). Talde horren barruan, hazkunderik handiena 84 urtetik gorakoetan izango da (13 milioi ingurutik 18 milioira 2010. urtean eta 22 milioira 2020. urtean).

Egoera horrek Europako gizartea inoiz baino zaharragoa dela adierazten du, egitura demografikoari dagokionez eta, seguruenik, baita jarrerari dagokionez ere.

Gizarte zibilak Euskal Herriko gizarteko zenbait neurri sozio-ekonomiko edo politikoren sustatzaile gisa izan duen eragina ere ukazina da. Ildo horretan, aisialdiaren eta kulturaren inguruan eratutako elkarten jardura garrantzitsua azpimarratu behar da. Une honetan baliabide klasikoak (alderdi politikoak) bidezko gizartearen iritzi-adostasuna handia da beharbada, baina kontsulta zabalak egitea eta iritzi publikoari aurkeztea ere garrantzia hartzen ari dira.

Iritzi publikora zabaltzeko jarrera hori (inkestak, foroak...) komunikazioaren teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerekin —multzo handiei kontsultak egitea, informazioa hedatzea, iritzia eskatzea, eta abar, orain arte pentsaezina zena, eragiketa hori ezinezkoa, zaila edo garestia baitzen— uztartu beharko dira. Hala ere, interkomunikazioa hobetu ahala, pertsonen iritziak biltzeko aukerak areagotzen dira. Hori dagoeneko berariaz aipatutako gizarte mailako hainbat alderditan erabakigarria gerta daiteke, hala nola talde ahulenen egoera hobetzeko bermeari dagozkion alderdietan.

Erronka hori garatzeko eragite-aldia edo epea oraina da oraingoz. Partaidetzako prozedurak martxan jartzearen garrantzia eta gizarteak erronka horietan parte hartzeko borondate agerikoa argi eta garbi geratzen dira hausnarketa-prozesu horrekin. Aipaturiko hausnarketara gonbidatutako pertsonak gogo sendoa agertu dute arduragai duten etorkizun horretan parte hartzeko.

Azkenik, kontuan hartu beharreko beste alderdi bat, gizarte zibilak nola parte hartzen duen eta zein eremu edo esparrutan parte hartu nahi duen zehaztea da. Ildo horretan, erronka horrek garrantzitsua edo lehentasun handikoa den beste batekin duen lotura azpimarratu behar da, pertsonen bizitzaren alderdi ezberdinetan adostasuna lortzeari dagokionarekin duena hain zuzen. Erronka horretan ez dira bizi-kalitateari buruzko aldagai ekonomiko edo materialak sartzen, eta berariaz azpimarratzen da ongizate berarekin estuki loturik dauden batasun-balioak sortzeko premia. Ongizatearen gaineko hausnarketa, komunitatean eragiten duten gogobetetze-

maila eta abar jorratzen dira “*Ongizate-estatu mendea aldatzean*”⁹ eta, zehazki, “*Epilogo: ongizatea eta ongizate-estatuaren krisia. Zorionaren ekonomia baterako osagaiak*” kapituluetan; segidan datozen iruzkinak hortik atera dira.

«Gizarte horiek munduaren bi ikuskeren arteko trantsizioaldi batean leudeke, eta, modu horretara, errentak ongizatea areagotzeko gero eta garrantzi txikiagoa dueneko azken azalpena ondokoa litzateke, alegia, Iraultza Industrialaz geroztik nagusi gertatu den eta ekonomia egituratu duen balio gailena ordezkatzeko lukeen balio-multzo berri baterako (post-materialista deitzen duena¹⁰) bidea egiten ari dela. Hala ere, ikuskera batetik bestera pasatzea ez da erraza, kultura garaikideak inoiz ez bezalako ilauntasuna eragin baitu. Batetik errealitate soziala gizakiaren eraikuntza bat dela uste dugu, baina, aldi berean, gizakia errealitatea nolabait kontrolatzeko gai denik zalantzan jartzen dugu (...) Zehaztugabetasun horrek gaur egungo egoeraren berri ematen du, pobrezia zergatik esanahia galdu duen barne. Pobrezia argi eta garbi gure egintzen emaitza da, baina behartsu ez direnek ez dute jada beren burua hori leuntzeko egintzarik burutzeko gai ikusten. Eta ez soluzioa zaila edo garestiegia dela uste dutelako, ezin plangintza orokorrek funtzionatuko duen konfiantza galdu dutelako baizik. Laguntza pertsonala eskaini lezake, noski, eta kasu jakinetan ongia egin. Baina hori pobrezia behin betiko erazuziko duen programa baten zati izan daitekeelako ideiak topo egiten du gizakiek bere sortutako errealitate sozialaren garapenean kontrol aski eskasa duteneko irudipenarekin».

Analisi hori bera ongizate-estatuaren egoerari edo, bestela esanda, asistentziatzeko ondasun eta zerbitzuen gaur egungo eskaintzari buruzko ikuskerari ere aplikatzen zaio. Ildo horretan, bere aplikagarritasuna eta, batik batik, eraginkortasuna, ezintasun edo desengainu hori eragingo ez duen iritzi jakin bat profesionali helarazteko ahalmenean datza. Horrela, «iritziak edukitzea edo, are hobeto, edukitzera heltzea eta informazio-, deliberamendu- eta eztabaida-prozesuaren bitartez adieraztea zorion eta ongizate pertsonala erdiesteko faktore erabakigarriak dira»¹¹.

Beraz, laburki esanda, gizarteak *barne-ezberdintasunen, bere zereginaren eta bere iritzia helarazteko beharraren* gainean egin ditzakeen hausnarketen arteko lotura bistakoa da, komunitate baten *giza kapitala* deitu izan denaren ardatz egituratzaile gisa.

6. 2006 eta 2021. urteetara begira.

Unibertsitateko ikasleen aurreikuspena

⁹ Rafael Muñoz de Bustillo (arg.). (2000): Alianza Ensayo.

¹⁰ «Post-materialistak ez dira ez-materialistak, eta are gutxiago antimaterialistak. *Post-materialista* hitza jendeak segurtasun materiala lortu *ondoren* eta segurtasun material hori lortu *izanagatik* indarra hartzen duen helburu-multzoarekin loturik dago (...) Post-materialimoaren agerpenak ez du polaritateen itzultzerik islatzen, lehentasunen aldaketa bat baino». Inglehartetik hartua, 1996, 523 orrialdea.

¹¹ Hirschman, A.O. (1989): “Having opinions- one of the elements of well-being?”. *American Economic Review, Papers and proceedings*, 79 bol. (1989).

6.1. Aldagai kuantitatiboak

Euskal Unibertsitatearen edozein eszenategik kontuan izan beharko lituzkeen gutxieneko aldagai kuantitatiboak honako hauek dira:

- **18-24 urte bitarteko gazteak**, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Komunitate Forala eta Frantziako Pyrénées Atlantiques Departamenduko Euskal lurraldeak kontuan izanik. Helduak unibertsitatera gero eta gehiago joango direla onartu arren, aztertutako urteetan multzorik handiena osatuko dute gazte hauek. Hipotesi guztien arabera, gazte-multzo horrek nabarmenki behera egingo du hurrengo urteetan. Horrela, 2021. urtean adin horretako gazteen multzoa ia ez da iritsiko gaur egungoaren erdira.
- **Bestelako adinetako unibertsitate-ikasleak**. Multzo horretan 25 urte edo gehiagoko pertsona helduak sartzen dira. Tendentzien arabera, multzo honek gorantz egingo du, hirugarren zikloko ikasketak, masterrak eta bestelako titulu eta birziklapen-ikastaroak direla eta.
- **Unibertsitateko eskolatzetasa**, 18-24 urte bitartean, unibertsitateko edozein irakasmilako ikasleen eta maila hori egiteko adin teorikoan (18-24) dagoen biztanleriaren arteko erlazioa. Ehunekobestearen arabera, unibertsitateko ikasle potentzialak lortzen ditugu. Enpresen eskakizunei eta Europako tendentziei jarraituz, ikasle gehiagok Lanbide Heziketako ikasketak hautatuko dituzte, eta datozen urteetan tasa hori txikiagoa izango da.
- **Goi-mailako eskolatzetaskak**, aurrekoaren antzera, goi-mailako Lanbide Heziketa eta unibertsitate-ikasketak hartzen ditu. Esan bezala, erabilitako hipotesiaren arabera, goi-mailako Lanbide Heziketako ikasleen portzentajeak gora egingo du, eta unibertsitate-ikasketak aukeratzen dituzten gazteen portzentajeak behera. Guztira hartuz gero, tasa honek gora egingo du.
- **Unibertsitate-ikasle potentzialak**, unibertsitateko eskolatzetaskak eta 18-24 urte bitarteko gazteak kontuan izanik, zifra honek potentzialki adin horretan unibertsitate-ikasketak egitera bidera daitezkeen gazteen kopuruak eskaintzen ditu.
- **25 urte baino gehiagoko unibertsitate-ikasleen kopurua** estimazioa da, Iparraldeari buruzko datuen faltagatik batez ere. Etorkizunari begira, kopuruak gehitu egingo dira, bizitza osoan ikastearen joerengatik.
- **Euskaldunen portzentajea**, aipatutako lurraldeetan biztanleria osoarekiko euskaldunen portzentajea, ehunekotan. Azken joerak eta gazteen ezaguera-maila ikusirik hipotesi baikorrak egin dira. Hala ere, hizkuntza-hautaketari buruzko estimazioak ez dira egin.

6.2. Etorkizunerako hipotesi nagusiak

Aldagai nagusiei buruzko hausnarketa eta azterketa kualitatiboa egin aurretik, aldagai kuantitatiboei buruzko hipotesiak adieraziko ditugu ondoko taula honetan.

Bertan honako aldagai nagusi eta hipotesi hauek islatzen ditugu:

	1996	2000	2006	2021
18-24 urte bitarteko gazteak	315.92 5	275.14 7	208.58 1	150.158
Unibertsitateko eskolatzetasa (%)	36	37	36	26
Goi mailako eskolatzetasa (%)	39	43,5	46	50
Unibertsitate-ikasle potentzialak	113.41 7	100.42 9	75.089	39.041
> 25 urteko unibertsitate-ikasleak		23.000	28.000	35.000
Euskaldunen portzentajea 18-24 (%)	33	38	52	62
Jaiotza-tasa	0,97	0,95	1,07	1,32

Aurreko taularen datuen arabera, aldaketa nabarmenak aurreikusten dira 2006. urteari begira, eta batez ere 2021. urteari begira. Aipagarrienak honako hauek dira:

- Ohiko ikasleen (18-24 urte bitartekoak) kopuruaren jaitsiera handia.
- Ikasle helduen igoera.
- Ikasle euskaldunen portzentajearen igoera handia

7. 2006 eta 2021. urteetara begira.

Unibertsitateari eta Hezkuntza-sistemari lotutako aldagaien azterketa

7.1. Demografiaren bilakaera

Proiekzio demografikoen arabera, etorkizunari begira Euskal Herriaren biztanle-galera murriztu arren, unibertsitateara joan beharko luketen gazteen kopuruek jaisten jarraituko dute. Ugalkortasuna zertxobait suspertuko da, eta migrazio-saldo negatiboa pixkanaka gutxituko da; hori dela eta, biztanle-galera ere motelduko da. Baina, zahartze-prozesua dela medio, gazteen kopuruak murrizten jarraituko du.

EUSTATEko txostenak dioten bezala¹², laurogeiko hamarkadako urteen hasieran, Euskal Autonomia Erkidegoak biztanle-kopuru altuena ezagutu zuen, baina berehala hazkunde-tasa negatiboko aldi bati ekin zion. Araba izan da zenbaki positiboetan iraun duen lurralde bakarra, baina beheranzko joera nabarmenarekin.

EUSTATEk proiektatutako urteei buruzko ikuspegiak (1996-2010) aldakuntza interesgarriak izan ditu, batez ere iragan hurbilenaren aldean.

Biztanleriaren maximoaren urtetik (1983tik) biztanleriari buruzko azken erreferentzia ezaguna arte¹³ (1995a arte), Euskal Autonomia Erkidegoak 50 mila biztanle inguru galdu ditu, eta 60 mila gehiago galduko ditu proiektzioaren hamabost urteetan, eta 2010. urtean, 2.040.000 biztanletik oso hurbil dauden zenbakitan geratuko da. Beraz, galera ez da oso nabarmena izango eta, izan ere, migrazio ahul baten eraginez oreka litekeen galera da.

Galerarik handienak laurogeiko hamarkadako urteen amaieran gertatu ziren. Horrela, 1985etik 2010era igaroko diren 25 urteetan, galdutako guztizkoaren ia %40 1990aren aurreko urteetan bildu zen.

Azken urteotan, oraindik zenbaki negatiboak iraun arren, beherapen-erritmoa moteldu egin da, eta gehiago moteltzea espero da. Geroago eta gehiago hurbilduko da zero-hazkundera (%-0,7 azken urtean, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez).

Euskal A Eren biztanleri piramideak, 1995-2010.

¹² EUSTAT (2000): *Biztanleri Proiekzioak 2000. Biztanleri proiektzioen estatistika (bpr) 2010*. Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz.

¹³ Biztanleriaren Zentsua aurtan, 2001 urtean, berrizten joan beharko litzateke eta datu zehatzagoekin proiektzio eta konparaketa eguneratuagoak egin zitezkeen.

Iturria: EUSTAT. Biztanleri Proiekzioak 2010.

Biztanleriaren urtekako bilakaera lurralde historikoaren eta sexuaren arabera. 1975-2010 (milakoak).

	Euskal AE			Araba / Álava			Bizkaia			Gipuzkoa		
	GUZ	G	E	GUZ	G	E	GUZ	G	E	GUZ	G	E
1975	2.071,8	1.026,7	1.045,1	237,4	119,2	118,2	1.154,8	570,0	584,7	679,7	337,5	342,2
1980	2.141,4	1.061,6	1.079,8	257,3	129,2	128,1	1.189,2	587,6	601,6	694,9	344,8	350,1
1985	2.142,0	1.056,9	1.085,1	268,3	134,2	134,1	1.182,4	581,7	600,7	691,3	341,0	350,3
1990	2.104,8	1.034,5	1.070,4	272,4	135,6	136,8	1.156,0	566,0	590,0	676,4	332,8	343,6
1995	2.099,1	1.027,5	1.071,6	281,3	139,6	141,7	1.141,3	555,9	585,4	676,5	331,9	344,5
2000	2.069,4	1.008,7	1.060,7	285,3	140,9	144,4	1.116,1	541,0	575,0	668,0	326,8	341,3
2005	2.048,7	994,1	1.054,5	290,7	142,9	147,8	1.094,3	527,8	566,5	663,7	323,5	340,2
2010	2.039,1	985,1	1.054,0	298,2	145,9	152,3	1.078,1	517,3	560,8	662,7	321,9	340,8

Iturria: EUSTAT. Biztanleria-Proiekzioak 2010.


Bestalde, INSEE delako elkarteak antzeko portaera antzeman du bere proiektzioetan¹⁴, Ipar Euskal Herriko populazioari dagokionez. Horrela, zahartze-prozesuari dagokionez, 20 urte baino gutxiago dutenen portzentajeak beherantz egingo du nabarmenki. Biztanleriaren zati hori %28,8koa zen 1975. urtean, eta, proiektzioen arabera, 2010. urtean %15,7koa baino ez da izango. Egoera larriena Zuberoan gertatuko da, non 20 urtez beherako gazteek %8,1 baino ez diren izango 2010. urtean.

Larria da, halaber, barneko (Zuberoa, Nafarroa Beherea) eta kostaldeko lurraldeen (Lapurdiko kostaldea) artean gertatzen ari den eta aurreikusten den desorekaren sakontze-prozesua. Populazio gehiena kostaldean (Biarritz–Angelu–Baiona inguruan) kokatzen ari da, eta etorkizunari begirako aurreikuspenen arabera, tendentzia hori areagotu egingo da. Ondoko taula eta grafikoetan ikus daiteke izandakoaren eta aurreikusitakoaren arteko bilakaera hori:

20 urte baino gutxiagokoaren bilakaera Iparraldean. (Biztanleria osoaren %tan)

Lurraldea	1975	1982	1990	2010
Lapurdiko kostaldea	28,4	25	22,3	15,7
Lapurdiko barnekaldea	30,2	29	26,3	23,4
Nafarroa Beherea	29,2	26,2	23	12,6
Zuberoa	27,8	24,2	20,9	8,1
Ipar Euskal Herria guztira	28,8	25,6	23	16,6

¹⁴ INSEE Aquitaine Recensements (1994): “Club de Prospective Pays Basque 2010. Diagnostic” txostenean. Conseil general des Pyrénées-Atlantiques.



Iturria: INSEE Aquitaine Recensements

Nafarroako biztanlerian ere, Euskal Autonomia Erkidegoan antzematen diren pareko parametro demografikoak¹⁵ ikus daitezke eta populazioaren etorkizuna antzeko bidetik doa.

Beraz, EUSTATEk dioenez —Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, baina oro har, beste lurraldeetara ere luza daiteke—, biztanleriaren suspertze neurritsu hori hiru osagai batera etortzeak eragin du:

- Lehenik eta behin, ugalkortasunaren portaera onari esker; horrela, indizeak hobetzeaz gain, kide askoko emakume-belaunaldiak adinik ugalkorrenetara iritsiko dira.
- Heriotza-kopurua ere igo egingo da; baina, batez ere, biztanleriaren egituraren ondorioz, hots, biztanleak geroago eta zaharragoak izatearen ondorioz, eta ez heriotza-tasen adierazleen portaera negatibo batengatik. Ondorioz, saldo negatiboak handitzen segituko du 2000. urtera arte, eta, urte horretatik aurrera, txikituz joango da, poliki baina etengabe, jaiotza-tasen eraginez.
- Azkenik, emigrazioak inmigrazioekin doitzeari esker, zeren 2010. urterako migrazio-saldoa ia zero baliokoa izango baita. Espero denez, inmigrazioak poliki-poliki igoko dira; emigrazioei buruz, berriz, tasak mantentzearen hipotesia begiztatu da. Kasu horretan, heriotza-tasekin bezala, biztanleriaren egiturak gure erkidegoko emigratzaileen guztizko kopuruaren jaitsiera bat eragingo du.

Aurrerago begira, EUSTATen hipotesien arabera¹⁶, 2010. urtetik aurrera, bilakaerako hipotesiak honako hauek dira: ugalkortasun- eta heriotza-tasek berdintsu jokatuko dute eta migrazioaren eragina —aurreikusteko zaila izan arren— oso txikia izango dela uste da, joango direnak eta etorriko direnak kontuan izanik.

¹⁵ INE (1996): *Proyecciones de la población de España calculadas a partir del Censo de Población de 1996*, Publicaciones electrónicas. Madrid.

¹⁶ EUSTAT: *Proyecciones de Población de Gipuzkoa 1995-2030*. G2020 gogoeta estrategikorako txostena eta proiektzioak (Argitaratu gabeko txostena).

Aurreikuspen horren arabera, Otik 19 urtera doan gazteen adin-taldeak heren bat galduko du. Eta, adibidez, aztertzen ari garen multzoari dagokionez, unibertsitate-ikasketak egiten dituztenen adin-taldea ez da iritsiko 2030. urtean 1995. urtean zirenen %60ra.

2015. urteraino, unibertsitatera joateko adinean dauden gazteen multzoak beherantz joko du etengabe. Adibidez, gaur egun 18-25 urte bitartean dauden gazteen kopuruaren erdia baino gutxiago izango da 2015. urtean.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoan 1975. urtean jaiotakoak eta gaur egun —2001. urtean— 26 urte dituzten gazteak 39.600 baziren, 1990. urtean jaiotakoak —2015. urtean 26 urte izango dituztenak, beraz— 16.400 baino ez ziren izan, hau da, *erdia baino askoz gutxiago*. Era berean, 1995. urtean jaiotakoak —hau da, 2015 urtean 20 urterekin unibertsitatean izan daitezkeenak— 15.300 baino ez dira izan.

Beraz, duela urte batzuetatik aurrera ikusten ari garen legez, *unibertsitateko ohiko ikasle potentzialak beherantz doaz etengabe*. Geroago eta gutxiago dira, nabarmenki. Joera edo tendentzia hori areagotu eta indartu egingo da datozen urteetan, *2015. urte inguruan tope egin arte*.

2015. urtetik aurrera, 18-25 urte bitarteko gazteen kopuruak berriz ere pixkanaka gehitzera joko du, eta 2025. urtean handiagotu egingo da, 2000-2005 urteetarako aurreikusten diren jaiotzen kopuruak 17.500 direlako. Aurrerago joanda, 2010. urterako aurreikusitako proiektzioen arabera jaioko direnak kontuan izanda —hau da, 2028. urtean 18 urte izango dituztenak eta beraz, unibertsitateko ohizko ikasle potentzialak—, guztira 19.600 izango dira.

Zifra horiek, noski, orain dela urte batzuek (1990-1993 urteak) genituenekin konparatuz —39.600 gazte urtero—, erdira ere ez dira heltzen; baina ikusiko dugun bezala, unibertsitate-zikloetako eskolatzetasak aldatzen joan dira.

Lurralde lurralde, biztanle-galera handiena izan arren (izan ere, proiektzioen azken urtean, 2010ean, Bizkaiak soilik jarraituko du biztanleak galtzen), Bizkaia izango da aurrerantzean ere biztanle-kopuru handieneko probintzia.

Laburbilduz, 2010erako itxaroten den piramidean, oraingoaren aldean, desberdina izango da, adin-talde guztiak ez baitira berdin haziko urte horietan. Gazteen taldeak biztanleriaren ia laurdena galduko du (%23,4); helduen taldeak ere, 20-64 urtekoak, kideak gutxituko ditu (%4,6 gutxiago); zaharrenak, berriz, haziko den talde bakarrak, ehuneko hogeita hamarretik gora gehituko ditu biztanleak (%32,8). Zenbaki absolutuetan, 102.000 gazte gutxiago, 61.000 heldu gutxiago eta 104.000 zahar gehiago.

Beraz, ez da eten biztanleriaren zahartze-prozesua: 2021. urtean gazte baino zahar gehiago egongo dira.

1975etik hona gehituz joan dira zaharrenen taldearen (65 urte eta gehiagokoen) pisu absolutua eta pisu erlatiboa; gazteenen taldea, aldiz, murriztu egin da. 1995etik 2010era, 20 urtetik beherako taldeak ehun mila biztanletik gora galduko ditu, hau da, gutxi gorabehera zaharrenen taldeak irabaziko duen biztanle-kopuru berdina. Horren ondorioz, 2000. urtetik aurrera, gazteak baino zahar gehiago egongo dira Euskal Herriko guztizko biztanlerian.

Bizilagun gehien duen erkidegoan —Euskal Autonomia Erkidegoan, alegia— helduen taldea ere murriztu egingo da (60. 000 biztanletik gora); dena dela, talde horrek biztanleria osoan duen pisu erlatiboari eustea lortuko du. Aldiaren amaieran, 1,7 heldu egongo dira, gazte eta zahar bakoitzeko. Hona hemen EUSTATen arabera adin talde nagusien bilakaera eta aurreikuspena, EAEn:

Biztanleriaren urtekako bilakaera (milakoetan) adin-talde nagusien arabera. Euskal AE, 1975-2010.

Iturria: EUSTAT. Biztanleria-Proiekzioak 2010.

Adituen hipotesien arabera, ugalkortasuna zertxobait suspertzea espero da —egia esan, nekeza da gehiago jaitea— eta jaiotzen kopurua igo egingo da.

Nolanahi den, nahiz eta oraindik belaunaldi-ordezkapena bermatzetik urrun dagoen, ugalkortasunak suspertze neurritsua izango du. Ugalkortasunaren hobetze hori ama gazteenengandik etorriko da, zeren 30 urte arte tasak jaisten jarraituko baitute, eta berrogei urte inguruko adinetan, ugalkortasuna oso urria baita.

Aldi proiektatuaren amaieran, EAeko emakume batek 1,25 seme-alaba izatea espero da, batez beste; hau da, 1985ean izan genuen “ugalkortasun orokorraren indize sintetiko” berbera. Gainera, herrialdeen artean ez dira aldatuko azken urteetako aldeak: ugalkortasun handiena Gipuzkoak izango du, eta emakume bakoitzeko seme-alaba gutxien, berriz, Bizkaiak.

**Jaiotza-kopuruaren bilakaera (milakoetan) eta urtekako indize sintetikoa
EAeko lurralde historikoen arabera. 1975-2010**

Iturria: EUSTAT. Biztanleria-Proiekzioak 2010.

Urte proiektatuetan emakume-belaunaldi nahiko handiak joango dira sartzen ugaltze-adinean, 60ko hamarkadako urteen eta 80ko hamarkadako amaieran jaiotako emakumeak. Gainera, esan bezala, indizeak suspertuz joan dira. Hori dela eta, jaiotza-kopurua igo egingo da, eta 2010. amaieran, urteko 20.000 jaiotza berri inguru izango dira.

Heriotza-tasei dagokienez, aldaketa handienak adinik gazteenetan agertuko dira; eta, gainera, adin helduetan atzeratu egingo dira heriotza-probabilitateak. Hau da, bizi-itxaropenak gorantz jarraituko du. Dena den, EUSTATEk dioenez, 20 eta 40 urte bitarteko gizonezkoei dagokienez eta 25 eta 30 urte bitarteko emakumezkoei dagokienez, heriotza-probabilitateek goranzko joera izango dute.

2010. urtean, urte bat aurretik hiltzeko probabilitatea 1995ean zegoenaren erdira jaitsiko da, eta 1975ekoa baino zortzi aldiz txikiagoa izango da.

Ipar Euskal Herriari dagokionez, INSEEn proiektzioen arabera¹⁷, antzeko joerak edo areago ematen ari diren tendentziak izango dira. 20 urte baino gutxiagoko biztanleriaren portzentajea 1975. urtean %28,8koa izatetik, %16,6koa izatera pasatuko da. Kostaldearen eta barnealdearen arteko desoreka eta ezberdinasunak nabarmen gehitzea espero da. Adibidez, Zuberoan 20 urtez beherakoak biztanlegoaren %8,1 baino ez izatea espero dute!

Esan bezala, Nafarroako bilakaera ardatz berdinetik joatea espero da. Hori dela eta, biztanle gehienak EAEn jarraituko dute bizitzen.

7.2. Eskolatzetase tendentzia

EUSTATen azken datuen arabera, 1998/99 ikasturtean ia 70.000 gazte —zehazki esanda, 68.698— zeuden unibertsitate-ikasketak egiten¹⁸. Hamar urte lehenago, 1988-89 ikasturtean, kopurua zerbait altutxoagoa zen: 72.518 gazte¹⁹.

Zernahi gisaz, 1998/99 ikasturteko unibertsitateko goi-mailako ikasketei dagokionez, eskolatzetaseak 18 eta 22 urte dituztenen artean %32,2 eta %38,1 bitartean izan ditugu; aldiz, hamar urte lehenago, tasa horiek zerbait beherago zeuden, %24,1 eta %28,8 bitartean²⁰.

Beraz, eskolatzetaseak gora egin du eta etorkizunari begira, aztertzen ari garen epeen mugetan, ez da espero tasa horietan aldaketa nabarmenik.

Hona hemen eskolatzetaseak, adinari jarraiki eta unibertsitateko ikasketei dagokienez:

<i>Adina</i>	<i>1991</i>	<i>1999</i>
--------------	-------------	-------------

¹⁷ INSEE Aquitaine Recensements (1994): “Club de Prospective Pays Basque 2010. Diagnostic” txostenean. Conseil general des Pyrénées-Atlantiques.

¹⁸ Eustat (2001): *Euskal Urtekari Estatistikoa 2001*.

¹⁹ Eustat (1992): *Euskal Urtekari Estatistikoa 1992*.

²⁰ Eustat. Irakaskuntzaren estatistika

18 urte	24,1	32,2
19 urte	28,8	36,6
20 urte	27,5	38,1
21 urte	28,0	36,0
22 urte	24,2	32,2
23 urte	16,3	24,3
24 urte	11,3	16,8
25 urte	d.g	11,5

Iturria: Eustat

Tendentzia orokorretan azaldu dugun bezala, “Hezkuntza guztiontzat eta bizitza osoan zehar” lemapean dagoen joera hedatzen den heinean, goi-zikloi eta 25 urtetik gorako adinei dagozkien eskolatzetarako nabarmen igoko dira.

Beste aldaketa bat ikasketen aukeraketan gertatuko da seguruenik. Beste lurralde batzuetan jazotzen den bezala, lanbide-heziketa hautatzen duten gazteen portzentajeak gora egingo du eta, aldiz, unibertsitate-ikasketak aukeratzen dituztenenak behera egingo du.

7.3. Euskalduntze-prozesuaren bilakaera


Gazte euskaldunak gehitu egingo dira

Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, gazteenen eta zaharrenean artean daude euskaldunen portzentajerik handienak, %30etik %57ra bitartekoak, hurrenez hurren. Nabarmentzekoa da 5 eta 24 urte bitarteko adin-taldeetan euskaldunen portzentajeak izandako gorakada. Izan ere, 25 urte baino gazteagoak direnen artean, euskaldunak erdaldun elebakarrak baino gehiago dira. Nagusitasun hori erabatekoa da 5 eta 14 urte bitarteko neska-mutiletan, adin-talde horretan euskaldunen portzentajea %50etik gorakoa baita, berori izaki gaur egun adin-taldeetan euskaldunena.

Oro har, adin-taldea zenbat eta gazteagoa izan, aldaketa hainbat eta handiagoa izan da. Esate baterako, 1981ean adin-talderik euskaldunena 85 urtetik gorako lagunen artean zegoen; hamabost urte beranduago, berriz, 5 eta 9 urte bitartean dago. Izan ere, 1981 eta 1996. urteen bitartean, 5 eta 9 urte bitarteko adin-taldeak izan du euskaldunen portzentajearen hazkunderik handiena (37,4 puntu).

6. irudia. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera 1981-1996, adin-taldeka (EAE)

Figura 6. Evolución de la competencia lingüística 1981-1996, por grupos de edad (CAV)



Nafarroan eta EAEn, 65 urte eta gehiagoko biztanleek etxean ikasi dute euskara, helduek (25-65 urte bitartekoek) bide berriak erabili ahal izan dituzte —ikastaroak, komunikabideak, hezkuntza formala...— eta gazteenek etxean eta hezkuntza formalean ikasi ahal izan dute²¹. Azkeneko urteetako arazoetatik aparte, Nafarroan ere gazte euskaldunak gehitzearen joera antzeman daiteke.

Ipar Euskal Herrian, euskararen erabileraren azterketetan ateratako datuek euskararen atzerakada erakusten badute ere, ikasle euskaldunen bilakaera goranzkoa izan da²².

Joera edo tendentzia nagusi horiek kontuan izanik, eta hizkuntzaren hautaketako beste faktorerik kontuan hartu gabe, gauza nabaria da, etorkizunari begira, goi-zikloetan euskarazko ikasketen eskaera gehitu egingo dela. Adibide garbia, asko ez badira ere, dagoeneko Euskal Herriko Unibertsitateak Euskara Hutsezko Doktorego Programak izatea da.

Ezin bukatu atal hau, SEI elkarteak —Euskal Soziolinguistika Institutuak— *Sortzen* izeneko ekimenaren barnean euskararen bilakaeran prospekzioak egiteko ipini duen tresna —*Begira* izeneko— aipatu gabe, hogeitau urte berru zenbat euskaldun izango diren aurreikusteko balio duena²³.

²¹ Nafarroako Gobernu (1997): Nafarroako Mapa Soziolinguistikoa 1991. Biztanleria euskaldunaren dinamika eta bilakaera.

²² Jaureguiberry, F. (1994): “Tendance et perspectives de l’enseignement en basque”, Club de Prospective Pays Basque 2010. Diagnostic” txostenean. Conseil general des Pyrénées-Atlantiques.

²³ SEI elkartearen webgunean informazio gehiago aurki daiteke: <http://www.sortu.org>

7.4. Unibertsitatea lan-merkatuaren tendentziei egokitu beharra

Bigarren hezkuntza biztanlerian hedatuz doan neurrian, herrialde guztietan nabarmentzen dugu gero eta presio handiagoa gazte gehiago hel daitezen unibertsitate ikasketak egitera. Baina, era berean, presio horri aurre egiteko, lurralde gehienetan unibertsitate-ikasketak burutzeko murrizketa eta iragazki gehiago jartzen dira, heziketa-sistemaren baliabideak babesteko eta, azken finean, baliabide horien degradazioa geldiarazteko.

Ondorioz, Europa osoan, hein batean behintzat, lan-merkatuarekin duen erlazioaren arabera, gazteen frustrazioa dakarren erreferentzia-sistema bihurtzen ari da unibertsitatea. Alde batetik, unibertsitate-heziketara ailegatzeko dituzten zailtasunengatik, eta, bestetik, lan-munduan ikasitakoa baino kualifikazio gutxiago dituzten lanpostuak betetzen ari direlako. Batek baino gehiagok mantentzen du azken urteetan gazteek unibertsitatean sortu izan dituzten konfliktoek zerikusi handia dutela funtsezko frustrazio horrekin²⁴.

Baina era berean, ikusi dugun bezala, demografiaren jaitsierak jadanik eragina du, eta are eragin handiagoa izango du etorkizunean. Hainbat lanbidetan langile gazteen falta dela eta, ondorioz, sortzen diren lan-eskaintza onak ikusiz, ez da batere arraroa tituluak lortu baino lehenago ikasketak uzten dituzten gazteak ikustea hainbat tokitan. Zalantzarik gabe, egoera horren luzapena kezagarria litzateke epe ertain eta luzeari begira.

Geroago eta eskola- eta heziketa-maila handiagoak dituzten pertsonak dituen gizartearen aurrean, galdera batzuk sortzen zaizkigu etorkizunari begira:

- Teknologiaren eta gizartearen aldaketen bizkortasun, sakontasun eta konplexutasunak, goi-mailako heziketa dituztenen kopurua gehitzea eskatzen ote dute?
- Heziketa luzeagoa behar ote da ala beste mota bateko heziketa?
- Jarraitu behar ote dugu ikasketetara erabateko dedikazioa duen ikasle-ereduarekin ala, aldi berean, ikasi eta lan egitearen eredurantz jo behar ote dugu? Zein motatako erregulazioa beharko genuke horretarako?
- Unibertsitateko eta goi-mailako hezkuntzaren betebeharra eraginkorra ote da gero eta herritar gehiagok gutxienez bigarren mailako heziketak dituen gizarte batean?
- Goi-mailako hezkuntzak geroago eta gehiago helburu kulturalen —ez profesionalen— bila joan beharko ote du? Edo geroago eta gehiago hezkuntza iraunkorra izan beharko ote du helburutzat? Edo biak bete beharko ote dira?
- Bestalde, jakintzaren gizartean murgiltze-prozesua heziketa iraunkorraren lekua indartzen ari da, eta ez ote dira ezabatzen ari heziketa orokorraren eta heziketa teknologikoaren arteko mugak? Unibertsitatea ez ote da gehiago egokitu beharko bizitza guztian zehar ikastearen garaietara?

7.5. Unibertsitatea eta Lanbide Heziketa enpresaren beharretara egokitu beharra

Azken datuen arabera goi-mailako lanbide-heziketako ikasleetatik gehienak ikasitako titulazioan sartzen dira lan-merkatura, batez ere sektore industrialean. Emaidza horiek prestakuntza-mota horren eskaintza lan-merkatuak egiten duen eskakizunetara egokituta dagoela erakusten dute.

²⁴ Homs, Oriol. “L’educacio secundaria a Europa.”. Gironako Unibertsitateko ICEa Hitzaldia

Beste aldetik, eta hezkuntza-sistemaren erreformaren esparruan, unibertsitatearen eta goi-mailako lanbide-heziketarako zentroen arteko erlazio estuagoa sustatu behar da. Horrela, goi-mailako lanbide-heziketaren balioespen soziala goratu egingo da, eta, alor teknologikoan bereziki, ikasketa unibertsitarioetarako sarbide gisa duen bide egoki modura balioetsiko da. Esan bezala, ikasketen aukeraketan izango du eragina.

Unibertsitateak berak ere ikasketa-mota ezberdinetan egokitze hori helburutzat ipini beharko luke, hezkuntza orokorrean, pertsonen kulturen eta bizitza-kalitatean eta, batez ere, etorkizuneko jakintzaren gizaritean duen zeregin garrantzitsua inola ere ahaztu gabe.

7.6. Atzerriko hizkuntzen presentzia handiagotu beharra

Gizartearen nazioartekotasun hazkorrak edozein lurraldetako giza baliabideetarik euskarri nagusienetariko bat bihurtu du hizkuntza ezberdinak menperatzea. Gaur egun lanerako tresna garrantzitsu gisa agertzen da atzerriko hizkuntzen erabilpena. Baita kanpoko jatorria duten teknologia berriak hartzeko ezinbesteko baliabide gisa ere.

Azken urteotan era nabarmenean hazi da Euskal Herriko biztanleriak atzeritar hizkuntzez duen ezagupena; eta bai ikasketa unibertsitarioak beste hizkuntzatan egiten dituzten gazteen kopurua ere, unibertsitateko hezkuntzara sartu aurretik erdietsi dituzten ezagupenei esker.

Europako Batasuneko partaide diren estatu gehienetan burutzen ari da modu eraginkorrean hezkuntza-prozesua atzerriko hizkuntza batez hastea. Derrigorrezkoa denean, oro har, gutxienez lehen hezkuntzako hirugarren urtetik aurrera hasten da.

Europar Batasunean lehen hezkuntzan sarriago irakasten den atzerriko hizkuntza ingelesa da. Beste atzerriko hizkuntzak frantsesa eta alemana dira.

Beheko (derrigorrezko) bigarren hezkuntzan nahitaezkoa da atzerriko hizkuntza batzuk ikastea. Herrialde batzuetan atzerriko hizkuntza bi sartzen dira derrigorrezko kurrikuluan (Belgika, Danimarka, Grezia, Holanda, Finlandia, Suedia) edo baita hiru ere (Luxemburg). Estatu gehienetan, aukerako ikasgai modura eskaintzen da atzerriko hizkuntza gehigarri bat ikasteko posibilitatea.

Orokorrean hartuta, hezkuntza-sistema guztiak eskaintzen dute atzerriko hizkuntzaren bat ikasteko aukera. Ingelesa da, alde handiz, bigarren hezkuntzan gehien ikasten den atzerriko hizkuntza. Europar Batasuneko beste hizkuntza ofizialek agerpen txikiagoa dute kurrikuluan eta ikasleek neurri txikiagoan eskatzen dituzte.

7.7. Etorkizunerako erronkak

Aurreko gogoetei helduz, eta Unibertsitateetarako baliozkoak izango direlakoan, UNESCOren *Office d'analyse et de prévision* delakoaren —‘Analisi eta Aurreikuspen Bulegoaren’— arduraduna den Jérôme Bindé-k²⁵ 2020. urteari begira hezkuntzarako aurreikusten dituen erronkak aipatuko ditugu:

- **Sare elektronikoen hedapena**, ikuspuntu kognitibotik ikasketa-prozesua errazten duten tresna indartsuak direlako.

²⁵ Bindé, Jérôme (2000): “L’education au XXI siècle”. Futuribles aldizkaria. 2000 Otsaila. 5-21. orr. Paris.

- *Ikas-inguruak asmatu beharra*, ikas-prozesuetan ezaguera berrien ekarpenak kontuan izanik, batez ere biologiarenak.
- *Ezaguera berrien azterketa eta behaketa sakona*, ikas-eduki eguneratuak, eta ez bakarrik zientifikoak, baizik eta eduki historiko eta sozialak, kultura ezberdinak kontuan izanik.
- Bizi guztian zehar *heziketa eta ikasketetara* eman beharreko *denboren gestioa, lana* eta *aisialdiarekin* batera.
- *Irakaskuntza-erakunde bilakaera*. Malgutasun handiagoko eta hierarkia txikiagoko gestioa; seguruenik erakunde eta hezkuntza-enpresa autonomoagoak bihurtuko dira, baina, era berean, elkarrekin komunikaturik eta arau komunekin.
- Botere publikoen bitartekotza *finantziario-bide berriak* asmatzeko, batez ere hezkuntzarekin lotuta dauden sistemen bitartez, esaterako, komunikazioaren eta edizioaren bidez.
- *Hezkuntza-erakunde ezberdinen* (formala, informala, urrunetiko hezkuntza, alternantzia) bilakaera eta elkarren arteko *harremanak baliabide eta teknologia berrietara* heltzeko.

Azken finean “Hezkuntza guztiontzat eta bizitza osoan zehar” lema ez da laburtzen hasierako hezkuntza eta hezkuntza iraunkorra gehituz, ez. “Hezkuntza guztiontzat eta bizitza osoan zehar” lemapean, gizartea bera hezitzailea izatea suposatzen da, ikasketen, lanaren eta aisialdi-denboren zatiketa gaituz.

Honetan Unibertsitatearen zeregina eta lekua “birdefinitu” beharko da. Alde batetik ezingo du bere baitan itxia jarraitu, eta bestetik, ohiko titulu-fabrika izatetik gizartearen garapenerako eta kulturarako baliabide modura jokatu beharko du indar berriarekin.

7.8. Teknologia Berriak heziketaren eta Unibertsitatearen etorkizunean

Itxaropen handiak daude Internet-ek eta teknologia berriek hezkuntzarekiko eta gizartearen bilakaerarekiko joka dezaketen zereginetan, eta seguruenez ez arrazoirik gabe.

Askok aipatzen duten bezala, Internet eta Teknologia berriak Herri edo Lurralde baten kultura eta heziketaren bultzatzaileak izan daitezke:

- Internet-ek eta Teknologia berriek herri baten eskaintza eta kultura integratzea bideratzen dute.
- Internet-ek eta Teknologia berriek edukiei buruzko informazioa sorrarazi, hedatu, zabaldu eta dinamizatzen dute.
- Internet-ek eta Teknologia berriek edukietarako eta informaziorako sarbidea eta zabalkuntza errazten dituzte.
- Internet-ek eta Teknologia berriek sektore publiko eta pribatu ezberdinen arteko lotura bideratzen dute.
- Internet-en eta Teknologia berrien erabilerak ikasketarako interes berezia sorraraz dezake herritarrengan, batez ere urrun edota erritmo ezberdinetan ikasi beharra dutenengan.
- Azken finean, Teknologia berriek balio erantsia duen informazioa eskain diezaiakete ikasleei eta gizarteari.

Gaian larregi sakondu gabe, adibide eta ikerketak ugaritzen ari dira azken urteetan, baina, zalantzarik gabe, *on-line* eran egiten den heziketaren arrakasta eta emaitzak, aurrerapen teknologikoa eta aurkezpen metodoen ginetik, arreta berezia, disziplina eta interaktibitateak behar dituzte²⁶, eta horretan irakaslearen zeregina ordezkazina da.

Zentzu horretan, etorkizunari begira eta teknologia berrien erabilerari dagokionez, Europar Komisioak bi erronka orokor ikusten ditu: indibidualizazioa eta praktikak.

Eta bestalde operatibitateari begiratuz, honako helburu nagusi hauek aurreikusten ditu:

- Ekipamenduari dagokionez, zentrozen arteko ezberdintasunak ezabatzea.
- Eskola eta unibertsitate guztietako ordenagailuetan Internet-ekiko konexioa ezartzea.
- Teknologia Berrien erabileran irakasleak prestatzea.
- Informazio eta eduki pertinateak eskuragarri ipintzea.
- Irakaslearen rol tradizionala aldatzea:
 - 3 Irakaslea ikasketa-prozesuaren bideratzailea izatea: aholkulari-tutorea bihurtzea.
 - 3 Ikaslea bere ikasketa-prozesuaren zuzendari eta kudeatzailea izatea.
 - 3 Ikas-sare efikazak antolatzea, Internet-ek eskaintzen dituen aukerak erabiliz.

Unibertsitate ezberdinek beren azterketetan, edota UEUren menpean antolatu diren Informatikari Euskaldunen Bilkura ezberdinek ukitu dituzte gai honi lotutako hainbat atal, baina asko da egiteke eta eztabaidatzeko dagoena.

7.9. Unibertsitatean Zientzia-teknologia-enpresa sistema bultzatu beharra

Unibertsitateak ikerketa eta berrikuntza teknologikorako berebiziko zentro bilakatu beharra dauka, beti ere teknologia-zentro eta enpresa-munduarekin lotura estua izanez, Euskal Zientziaren eta Teknologiaren sistema sendo eta indartsua lortuz. Era berean, garatzen duen ikerketaren emaitzak komertzializatzeko, Unibertsitateari emaniko laguntza berrindartu beharra dago; askotan litezkeen eskatzaileek ez dute ikerketa hori ezagutzen, ezta behar bezala balioesten ere. Kontuan izan behar dugu ezen, Unibertsitatearen akats eta hutsune guztiak kontuan izanda ere eta Europako lurralde aurreratuekin konparatuz atzean izanda ere, ikerketarako potentzial izugarria duela, besteak beste ikertzaile gehienak Unibertsitatean daudelako²⁷.

Gogoratu beharra dago, halaber, Euskadi Autonomia Elkarrekin onartuta daukan Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako 2001-2004 Planean Unibertsitatearen ekarpenaren beharra aipatzen dela.

Plan berean, hezkuntzari zuzendutako ikerkuntza-programatik aparte, “Hizkuntzaren infoingenieria” deitutako arloan etorkizunari begira interesgarriak izan daitezkeen helburuak daude adierazita. Besteak beste:

- Teknologia Digital Berriei dagokienez —eta Informazioaren Gizartearekin erlazionaturik—, euskara atzean ez geratzea.

²⁶ Hanson-Muir, Diana J. (2000): “Future of Education in the 21st Century via The Internet”. *Futures Research Quarterly*. Spring 2000. Vol 16, Number 1. 51-75 orr.

- Hizkuntzalaritzan eta Hizkuntza-Teknologietan, euskara hizkuntza hedatuen mailan (ingeleza, alemanera, espainola, frantsesa...) agertzea.

7.10. Hezkuntza-sistemaren kalitatea tinkotzeko beharra

Kalitatezko hezkuntza lortu ahal izateko, informazioaren teknologiek nahitaez sartu beharra dute hezkuntza-sistemako maila guztietan. Ikasleak txikitatik teknologia erabiltzeko erraztasuna hartzea ekarriko luke horrek, eta mota guztietako jakintzetan sarbidea izateko ematen dituzten aukerak aprobetxatzea lekarke, gizarteak eta lan-merkatuak egiten dituzten eskaerarako gaztetandik prestatuz.

Maila guztietan ikasketa-zentroetan ematen den irakaskuntzaren kalitatea ebaluatzeko sistemak ezartzeko lanetan aurreratu beharra dago. Izatez, lehendabiziko pausoak eman dira jadanik. Kalitate-irizpideei jarraiki, sistema horrek ikasketa-zentroa aukeratzeko informazio gardena luzatuko lieke ikasleei eta familiei.

7.11. Ezagueraren eta informazioaren gizarterantz

Tendentzia indartsutzat hartu behar dugu, zalantzarik gabe, jakintzaren gizarterantz joatearena. Alain Michel-ek dioen bezala²⁸, eskolaren rola eta prestigioa birbalioesteko, hezkuntza-sistema eta bereziki unibertsitateak etengabeko ikas-prozesua bideratzen duen erakunde modura definitu beharrean gaude. Unibertsitateak erantzukizuna hartu behar du zeregin horretan eta konpetentzien garapenean.

Beharbada, nola irakatsi zer irakatsi baino garrantzitsuago izango da jakintzaren gizartean. Informazioz beteriko gizarte batean, zail egingo da ikaslearen arreta mantentzea. Informazioa kanal askotatik iritsiko zaigu, eta etengabeko estimulu eta arreta izateko, irakaskuntza-metodo berriak asmatu beharko dira.

Seguruenik, ikas-prozesua inplikazio- eta aurkikuntza-prozesu bihurtu beharko dugu. Eta bestalde, bere bizitzaren edozein momentuan dauden pertsonen ikas-eskakizunak asebetetzeko, erantzun pertsonalizatuak eman beharko zaizkie, ikasten egiten dituzten ahaleginak betetzeko.

Beraz, nahitaez harreman berriak sortuko dira ikasleen eta irakasleen artean. Ikasketa-prozesua gehiago izango da ezagutzen elkartruke bat, orain arteko ezagutzen transferentzia baino. Era berean, ikas eta irakasteko moduen aldaketek eskolaren eta unibertsitatearen aldaketa ekarri beharko dute. Betidanik horrela ulertu badira ere, Unibertsitateak elkarguneak izan beharko dute geroago eta gehiago —nahiz elkargune fisikoak, nahiz birtualak—, aktore ezberdinak (enpresak, ikasleak, irakasleak, erakundeak...) ikas-prozesuan elkartzeko guneak, alegia.

Azkenik, askok ahaztu arren, Alfons Cornella-k dioen bezala, bizi garen gizarte kontsumitzaile, konpetitibo eta indibidualista honetan, etorkizunerako erronka garrantzitsuena irakasleen eta ikasleen arteko balioen transmisioan edo, hobeto esanda, trukaketan datza. Aurrerago aipatu dugu hezkuntza demokratikoa eta norberaren berezitasunei egokitua izan beharra. Gurea bezalako herri txiki batean, erronka horrek zentzu guztia du: betebeharrak da, bai, baina, era berean, betebeharrak ekonomikoa.

²⁷ Astigarraga, E; Irasuegi, M. (1997): "Aproximación a la oferta investigadora en la UPV/EHU" EHUko Gizarte Kontseilua. Bilbo.

²⁸ Michel, Alain (2001): Six scénarios sur l'École. Futuribles. 266 zbakia, 2001.eko uztaila-abuztua

8. Ondorioak

Euskarazko unibertsitateari dagokionez, euskal gizartearen eta hezkuntzaren etorkizunari begira, tendentzia aipagarri batzuk honako hauek lirateke:

- Bilakaera demografikoaren ondorioz, ohiko ikasleen (18-24 urte bitartekoak) kopurua nabarmenki jaitsiko da. Agian, gazte-multzo hori zertxobait errekuiperatuko da 2020. urtetik aurrera, baina ez lehenago.
- Era berean, ikasle helduen igoera espero da. Etorkizuneko gizartean helduen presentzia areagotuko egingo da, eta heldu horiei heziketa iraunkorrerako eta birziklatze profesionalerako sistema malgu eta baliagarria eskaini beharko zaie.
- Jakintzak agudo zaharkituak geratzen direnez, ia etengabeko heziketa jarraitzera behartuta gaude. Horrela, bizitza osoan zeharreko ikasketen beharra izango dugu, guztiontzat.
- Etorkizunean sartzeko, hezkuntza-sistemak informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan oinarritu beharko du, eta, horrez gain, eskariaren etengabeko dibertsifikazioari erantzuteko gai izan beharko du.
- Hezkuntza-egitura zurrinak beren edukiak gizaki edo talde eskatzailearen premietara egokituko dituzten modalitate malguagoetara aldatu beharko dira.
- Ikasle eta irakaslearen rol tradizionalak aldatuz joango dira. Irakaslea ikasketa-prozesuaren bideratzailea —hau da trasmisore hutsa— baino gehiago aholkulari-tutore bihurtuko da, eta ikaslea bere ikasketa-prozesuaren zuzendari eta kudeatzailea izatera iritsiko da. Horretarako, era guztietako ikas-sare efikazak antolatu beharko dira.
- Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera nolakoa den ikusita, eta hizkuntzaren hautaketan faktore berriak agertzen ez badira, ikasle euskaldunen portzentajearen igoera handia espero da, eta 2021. urtean portzentaje horrek gaur egungoa bikoitz dezake.